

FAUNA PUBLIKOA

“[Kanbon egingo den] ekitaldia Euskaditik kanpo dago eta ETAk Euskadin izan du eragin handiena”

Josu Erkoreka, Eusko Jaurlaritzako bozeramailea (Twitter)

Kanbo eta Kanbodia: antzeko parezido



Gorka Bereziartua Mitxelena
@boligorria

Irakurri ote ditu Josu Erkorekak bere alderdiaren estatutuak? Enekoitz Esnaola *Berria*-ko kazetariak bai, eta honakoa aurkitu du oinarri nagusietan: “Euzko Alderdi Jeltzaleak Euzkadi du Aberritzat, eta euskaldun jendea bizi den Pirinioetako bi aldeetara dagoen lurraldetzat”. 2016an berretsi zuen Alfa eta Omegaren partiduak aberriaren definizio hori, Baluarte jauregian egindako VII. Batzar Nagusian. Alegia, Iruñean –Euskaditik kanpo?–.

Bai gauza elastikoa gure aberria: abertzaletasunaren subjektu politikoa Aturritik Ebroraino estiratzen da garaipen elektoralean igande gauetan; eta administratzen duguntxora mugatzen biharamunean, Excel taula ireki bezain pronto. Proiektu amankomunarentzat izen bat adostea ere ez da lortu oraindik –Euskadi? Euskal Herria? Azkenaldiko Basque Country *postmo* hori?–, eta Jaurlaritzako bozeramaileak pausotxo bat gehiago eman du, Kanbo eta Kanbodia distantzia psikopolitiko berdintsuan jarritz.

EAEko Gobernuak izango ditu, noski, benetako arrazoi taktikoak Kanboko ekitaldira ez joateko; baina zein diren publikoki esplikatzeko gogo handirik ez. Erkorekarena ez da, ordea, irtenbiderik eleganteena. Aitzakiak behar bazi-tuen, guk baditugu hobeak. Adibidez: “Egun horretan lupia labea edukiko dut eta badakizu zenbat arreta eskatzen duen”. Edo: “Joango nintzateke, baina eske arratsaldea erdibitzen dit”. Aitzakia kulturalak ere funtziona: “Eta orain abisatzen didazu? Fito & Fitipaldisen kontzerturako sarre-rak dauzkatzat, *desolé*, ezin dut joan”. Eta nola ez, familiak: “Ui, keba, keba, imposible: alaba asteburu osorako kanpora doa eta kotxea utzi behar izan diot”.

Denak ere aproposagoak, beste euskal herritarrei nazio-tasuna ukatzea baino. ■

**EZ
HANKA
EZ
BURU!**



KANBO, 2018KO MAIATZAREN 4a...

